

3

artikulua



Ingurugiroa



LAUDIO

ura Laudion

XXXI



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



Laudion kontsumitzen den ura, gehien batean, Aiara eskualde osoa hornitzen duen Maroño urtegitik dator. Aplikatutako potabilizazio tratamenduari esker, sareko uraren kalitatea oso maila onekoa da, sanitateko zerbitzuen arabera.

Maroñoko urtegiaren eraikuntzak natura baliabide preziatu honen horniduran sustantziako hobaria ekarri du, nahiz eta oraindik aspektu batzuetan kudeaketa ez den hoberenarikoa.

uraren kontsumoa

Etxeetan erabiltzen den uraren kontsumoaren indizearen zifra da 127 litro, bizilagun eta eguneko. Bolumen hori Gasteizeko 123 litro baino zertxobait altuagoa da, baina Bilboko 150 litroak baino nahikoa baxuagoa.

Etxean erabilerak	Industri erabilerak	Beste erabilerak	Guztira
775.948 m ³ (%76,84)	112.614 m ³ (%11,15)	121.264 m ³ (%12)	1.009.826 m ³

2002ko datuak

Uraren kontsumorik handiena duen sektorea etxebizitzetakoak da, industria eta beste erabilera batzuetakoak jarraitzen diolarik, eta hor sartzen da merkataritza eta ostalaritza.

aholkuak

Gure etxeetan ur kontsumoa aurrezteko aholku batzuk:

- Itxi txorrota haginak garbitu behar dituzun bakoitzean.
- Ondo bete garbigailua eta ontzi garbigailua erabili baino lehen.
- Garbitu platerak txorrota itxita duzula. Harraska betez gero, aldiro-aldiro 80 litro ur aurreztu ohi dugu.
- Hobe dutzatzea bainatzea baino, jarri atomizagailu bana dutxan eta txorrotetan.
- Jarri adreilu edo ur botila bat komuneko zisternan, deskarga bakoitzean ateratzen den ura murrizteko. Deskarga erregulatuak duten zisternak erre eros daitezke.
- Ureztatu behar-beharrezkoa dena bakarrik. Goizean edo gauean ureztatuz gero, luzaroago mantenduko da hezetasuna, edo landare geruza edo zerrautsa bota dezakegu lur gainean.

Jasangarritasunaren helburu orokorra:

- Uraren hornidura eta kalitate ona bermatzea
- Uraren kontsumo zuhurra egin
- Hondakin urak araztea



Laudioren Jasangarritasunerako ekintza plana



Laudion zer egin da?

• Uraren kontsumo zuhurra egin

Ingurugiro Ekimen Planak apostu egiten du uraren kontsumoa gutxitzea erraztuko duen "eskariaren kudeaketa jasangarria" ren alde. Ildo honetan, planak proposatzen ditu ekimen eta neurri hala teknologikoak nola herritarren kontzientziazio, informazio eta parte hartzeak.

• Uraren hornidura eta kalitate ona bermatzea

Behin uraren hornidura bermatuta udalerrian zein kontsumitutako uraren kalitate ona, Laudio Ekimen Planak proposatzen du :


- Egoera onean ez dauden hornidura sareetako zati zaharkituen hobekuntza eta eraberritzea. 2002 urtean zehar, Karmengo Andre Mari eta Nerbioi kaleetako uraren hornidurako lehen mailako sareko eroanbideen ordezkapena egin zen.
- Uraren hornidura eramatea landa edo baserrien zona ezberdinetara edo gaur egun hornidurarik jasotzen ez dutenetara, ur-biltegi, ponpaketa eta eroanbide berrien bitartez. 2001 urtean, Lusurbeilanda eta Oleta aldeetara eraman zen uraren hornidura eta 2002 urtean, Malkuartu, Luja eta Goienuri auzora.

Laudion zer falta da egiteko?

• Arazo bat konpondu barik, hondakin uren arazketa

Ingurugiro Ekimen Planak planteatzen du lehentasun handikoa legez Nerbion Ibaiako uren kalitatea hobetzea. Etxebizitzetako hondakin urek gaur egun ez dute inolako tratamendurik, Hondakin Uren Arazketa Tegirik (HUAT) ez baitago; beraz, estoldetako biltegien sarean jasotako hondakin urak artez eta zuzenean isurtzen dira Nerbioi ibaira.

Egoera hori konpontzeko, Laudio Udalak arazketa sistemak martxan jartzea eta ubidean zehar gertatzen diren isuriaren kontrola hobetzeko behar diren neurriak zeintzuk diren aztertzen ari da, eta horietatik hasita aukera berriak zabaldu ahal izango dira ibaiaren erakargarritasuna handitzeko eta, albo indarrez eta hedaduraz, Laudio herriko espazioko multzo osoarena.



Zer bait egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat**.

Hau da 13 artikuludun bildurraren laugarren alea. Bilduma egin nahi baduzu, udaletxetik aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizugu, udaletxeko Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu.